

EDITORIALA



Espazioen kalitateak hezkuntza-pedagogian eragina duela esatea gauza jakina da. Ikasgelaren espazioak eta antolaketak hezkuntza-eremuaz hitzegiten du. Haurren hezkuntzak berebiziko garrantzia du etorkizuneko gizarteak espazioarekiko sentsibilitatea izan dezan, eta horregatik balio estrategikoa du hezkuntzaren arkitekturan. Gure artean puri-purian dagoen gaia da eta arkitektura haur-hezkuntzaren espazioekin ari da bereziki esperimendatzen —indartsu jaioberri den egitekoa— eta horren agerbide dira Aldiriren zenbaki honen artikulua. Eredu anglosaxoiaren ikasgelak esplotatu nahi dira eta haurra espazioaren esperimendazioarekin harremanean jarri nahi da. Haurrak bere mundua arakatzeko parada izan dezan, kontroleko esparruetatik urruntzeko espazioak diseina daitezke. Norbanakoaren ezagutzak eta bestelako jakintza-arloek matematikak adina balio dutela goraiatu nahi da espazioa dela medio.

Gure ikastola eta eskoletako jolas-eremuetako espazio-esperientziak berebiziko garrantzia du etorkizuneko euskal gizartearen espazio eta giza harremanen ulermenerako. Jolas-patioa ez da espazio neutro bat eta berorren gainean gertatzen denaz gogoeta egitea beharrezkoa da.

Giza harremanak, genero-rolak eta identitatearen gaineko aferak hezkuntza-guneetan negoziatu eta ezartzen dira. Baina gogoeta ez da hezkuntza-esparrura mugatu behar. Eta egiteko horretan pedagogoa eta hezkuntza-metodologiaren ezagutzarekin lan-esparru zabal eta oparoa ireki da, arkitekturekin elkarlanean.

Baina gogoeta ez da hezkuntza esparrura mugatu behar. Hirietan aurkitzen diren jolas-parkeak adibide ezin hobeak dira txikien eta helduen hezkuntza-guneen gaineko politika deskubritzeko: non, nola eta zertara jolas daitekeen aurrez erabakita dago —botere-espazioak bilakatuz—, eta ongi hesitutako espazio kontrolatu horren barnean haurra robot bat besterik ez da. Seguritatearen izenean gainera. Eredu hori, baina modu leunago batean nahi bada, gure lurralde, hiri eta herrietako espazio publikoetan errepikatzen da.

Finean, datozen lerroetan arkitekturak hezkuntzan betetzen duen eta bete lezakeen paperaz jardungo gara.